



## **COVID-19 KORONABIRUSaren ZABALPENA EKIDITEKO Zeraingo Udalak hartutako neurriak 2020-03-13an**

### **1. Herritarrek informatu:**

- Buzoneo bidez unean uneko neurrien inguruko informazioa zabalduko da.
- Osakidetzak emaniko prebentzio neurri eta gomendioen zabalpena egingo da, eraikin publiko guztietan eta kaleko kortxoetan.
- Komun publikoetan garbiketa indartuko da eta eskuak garbitzeari buruzko azalpena jarri da.
- Web gunean prebentzio neurriak eta gomendioak jarri dira.

### **2. Eraikin/zerbitzu publikoak:**

- Martxoaren 13tik aurrera (ostirala) hezkuntza guneak (Haurreskola, Herri Eskola) ixteko dekretua aintzat hartuz, **HAINBAT UDAL ERAIKIN ITXI eta JENDAURREKO ZERBITZUAK BERTAN BEHERA** geratuko dira epealdi berean: **eskola, haurreskola eta Kultur Etxearen bigarren pisuko gelak.**
- **FRONTOIA IREKITA momentuz baina bai frontoian eta baita parkean ere ezin da jende multzorik egon.**
- **Mediku kontsulta IREKITA.**
- **Turismo bulegoa eta Denda Txikia IREKITA momentuz.**
- **UDALETXEA IREKITA** dago momentuz, baina ahal dela aurrez aurrekoa saihestea eskatzen da, telefono edo email bidezko harremana lehenetsiz. Gogoratu tramite ofizialak on-line egiteko aukera duzuela webgunean.

### **3. Ekitaldi publikoak eta Jarduerak:**

- Haur ekintzak eta eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera utziko dira Herri Eskola itxita dagoen artean: Musika Eskola, Eskola Kirola,....
- Ikastaroak zunba, yoga, dantza....ere bertan behera gelditu dira.
- Batzordeetako bilerak ez dira egingo.

### **4. Udal Langilegoa:**

- Udal langilegoak ohiko lanari eutsiko dio, gomendio eta prebentzio neurri orokorrak jarraituz.
- Jendaurreko lanpostuetan garbiketa neurriak hartzeko protokoloa landu da eta datozen egunetan egoeraren arabera neurri gehiago aztertuko dira.

Denon ardura da herritarrei eskatu zaizkigun neurriak ardurak betetzea, aldez aurretik eskerrik asko!!

Zerainen, 2020ko martxoaren 13an



ZERAINGO UDALA

# KORONABIRUSA

## ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA BABESTEKO?



**1 ESKUAK SARRITAN  
GARBITU.**



**2 EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN,  
ESTALI AHOA ETA SUDURRA  
UKONDOAREKIN EDO ZAPI BATEKIN.**

BOTA ZAPIA BEREHALA ETA GARBITU  
ESKUAK ALKOHOL-OINARRIA DUEN  
ESKUETAKO DESINFECTATZAILE  
BATEKIN EDO UR ETA XABOIAREKIN.



**3 MANTENDU METRO BATEKO TARTEA,  
GUTXIENEZ, EZTUL EDO DOMINISTIKU  
EGITEN DUTEN EDO SUKARRA DUTEN  
PERTSONENGANDIK.**



**4 EZ UKITU BEGIAK,  
SUDURRA ETA AHOA.**



**5 ETXEAN ETA LEKU PUBLIKOETAN  
ESKUEKIN UKITZEN DIREN GAINAZALEN  
GARBIKETA AREAGOTU.**



OSAKIDETZA ETA  
OSASUN SAILAREN WEB ORRIETAN



Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO